

Labayru Hiztegiaren mugikorrerako aplikazioaren aurkezpenean, Adolfo Arejitak esandako hitzak

Bilbon, 2016-04-28

Labayru Hiztegiaren edukia mugikor edo esku-telefonoetan erabilgarri dagoala jente aurrean iragarteko erabagia hartu badogu, izan da euskal jentea, eta erbestekoa bide batez, jakitun ipintearren.

Hedabideetako jenteari eskerrak, hona bertora etorrita edo lantokitik gure hizkuntzaren aldeko bultzada txiki honetan lagun egingo douenoi.

Herri Aginteen babespean euskal hizkuntza eta kulturaren alde ahaleginean diharduen erakundea da Labayru Fundazioa: Eusko Jaurlaritzagaz (HPS) eta Bizkaiko Foru Aldundiagaz (Kultura Saila, Euskara Sustatzeko Zuzendaritza) ditugun Hitzarmen finkoak barik, eta BBK Gizarte Ekintzaren laguntzak barik, nekez bideratu eta burutu ahal izango gendukez gaurkoa lako zerbitzuak, kultura eta gizarte zerbitzuak, azken baten; oinarrizko zerbitzuak, erreferentziakoak izan nahikoak.

Hiztegigintza Egitasmoaren aplikazino barri bat da gaur hemen aurkezten doguna, hau da, teknologia barrikuntza euskal hiztegiari aplikatuta, era librean eta doan erabilteko. Hiztegia edo lexikografia berba estuegiak dira eskeintzen doguna adierazteko: euskeraren kalitateaz eta estilo onaz estu lotuta dago Labayruren hiztegigintza lana. Ez dogu bilatzen hitzak eta esaldiak zuzen eta arauz idazteko bidea erakustea, ezpada euskera ona, sendoa, segurua, euskaldunon betiko euskera erakustea da gure lehia.

Tresna hain txikian, esku-aparatu baten, lehen tomo nagusi bitan geunkan eduki ugaria kontsultau ahal izatea aurrerakuntza tekniko handia da, baina niretzat garrantzirik gehienekoa, hiztegiaren edukia bera ondo elaboraturik eskeintzea da, euskeratik zein gaztelaniatik abiatuta hitz baten esangurea edo ingurunea bilatzen ditugunean. Corpus elaboratu horri emoten deusat behintasuna, baina ahaztu barik aplikazino barri honek eskeintzen dauen bizkortasuna eta erosotasuna.

Hiztegigintzako lana, berez, gitxi nabarmentzen dana da. Txiri-txiri eta eten barik Labayruren bulegoetan egiten dan lan eroapentsua. Joskile batek soineko barri bat josten eta brodatzen dauen antzera, halantxe dihardu Labayruk euskal hitzen mundua jorratzen: esangura diferenteak, sinonimoak, kolokazioak, esamoldeak, errefrauek... euskal hitzen altxorra batzen eta elaboratzen, gaztelaniazko ordain egokiez buztartzen, adibide adituez argitzen, gramatika-berezitasunak markatzen. Etenbako gehikuntzan eta hobekuntzan.

Itxura baten hots handirik ateraten dauen lana ez dirudien arren, luzera emankorra eta frutukorra da euskal gizartearentzat lan hau; eraginkorra, berba baten. Gure hizkuntzaren lur maminak, zabaleran ez eze, sakoneran irabazten dau.

Gure ikasleek, irakasleek, kazetariak, idazleek, itzultzaileek..., euskeraz diharduen profesional eta zaletuek orohar, gero eta estimazino handiagoa emongo deutsela Labayruren lan honi seguru gagoz.

Gure helburua, luzarora, euskereak gure gizarte erdaldundu honetan bere lekua sendotzea eta normaltzea da. Eta prozesu hori, batez be, gaztetxo eta gazteetan txertatu eta indartu dadin gura genduke. Helburu horretara oraingo barrikuntza hau berebizikoa dala seguru gagoz.

Eta papera maite-maite dogunok be hibrido bihurtu gara. Euskarri zaharretan eta barrietan gabilz igerian, bietatik edaten dogu.

Eskertu nahi ditut, amaitzeko, aurkezpen honetan lagun eta Labayru Fundazioaren Lexikografia egitasmo osoan, era batera edo bestera lankide ditugun erakunde eta pertsonak:

- Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, beronen Euskara Sustatzeko zuzendaria dan Jokin Azkue jaunak ordezkatur;
- Bizkaiko Foru Aldundiaren Kultura Saila eta Euskera Sustatzeko Zuzendaritza, honen zuzendari dan Ana de Castro andreak ordezkatur.
- BBK Fundazioaren Gizarte Ekintzaren zuzendaritza-kide dan Leire Aragon andrea.

Zoriondu nahi dot, aldi berean, Labayru Fundazioan Lexikografia Egitasmoa aurrera daroan teknikari-talde osoa. Ziortza Eguren andrearen koordinatze pean diharduen Olatz Petralanda, Jaione Bilbao eta Nagore Etxebarria berariaz,

eta honeekaz batera, bai Labayru barruko hainbat lankide, egitasmo honi informazino lexikografia bideratzen deutsana, dala herri ondare alderdikoa, dala itzulpen zerbitzuetakoa, dala literatura corpus idatzietatik, dala ahozko informatzaileetatik edo dala beste iturrietatik jaso.

Ez ditut ahaztuta itxi nahi, gure kanpotiko barri-emoileak, batzuk gure Laguntzaile zuzenak, beste batzuk Labayruren eta herri-hizkeraren zale eta lagunak.

Eskerrik asko.